



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak”

2023ko apirilaren 16a
2. Pazko igandea (A)

Joan 20, 19-31.

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; juduagintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: “Bakea zuei”. Gero, eskuak eta saiheza erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: “Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet”. Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: “Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die”.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Elkartu zirenean, beste ikasleek esan zioten: Jauna ikusi dugu.

Tomasek erantzun zien: Haren eskuetan iltzeen seinalea ikusten ez badut, eta nire atzamarra iltzezuloetan eta nire eskua haren saiheztuloan sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko.

Zortzi egunen buruan, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere bertan zen. Ateak itxirik zeuden arren, sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: “Bakea zuei”. Gero, esan zion Tomasi: Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saiheztuloan. Eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik.

Tomasek erantzun zion: Ene Jauna eta ene Jainkoa!

Jesusek esan zion: Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak.

Mirarizko beste seinale asko egin zituen Jesusek bere ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak. Hemen kontatuak Jesus Mesias eta Jainkoaren Semea dela sinets dezazuen idatzi dira eta, sinetsiz, betiko bizia izan dezazuen hari esker.

Zortzi egun ondoren heldu zan Jesus. Pazko ondorengo aldiko ezaugarri dira bakea eta poza.

HASIERA BERRIA

José Antonio Pagola

Jesusen atarramenduaz izaturik, etxe ezagun batean babestu dira ikasleak. Elkarturik dira berriro, baina Jesus ez dute jada berekin. Elkartean hutsune bat da, inork bete ezina. Jesus falta da. Ezin entzun dute jada, suak harturiko haren hitza. Ezin ikusi dute hura zoritxarreko jendea txeraz bedeinkatzen. Nori jarraitu orain?

Ilunabarra da Jerusalem, baita ikasleen bihotzean ere. Ezin kontsolatu ditu inork beren triste aldian. Pixkana, beldurra ari da jabetzen guztiez, baina jada ez dute Jesus beren artean, bihotza indartzeko. Nola-halako segurtasuna ematen dien gauza bakarra «ateak ixtea da». Jada inork ez du pentsatzen bideetara irtetea, Jainkoaren erreinua hots egiteko eta bizitza sendatzeko. Jesus gabe, nolaz kutsatu haren Berri Ona?

Joan ebanjelariak modu garaiezinean deskribatu du ikasleen baitan gertatu den eraldatzea, Jesus, bizi betean, haien artean agertu denean. Berpiztua han dago berriro bere jarraitzaileen elkartean erdian. Horrela izan behar du beti. Harekin, dena da posible: beldurretik libre izatea, ateak irekitzea eta ebanjeliazioa abian jartzea.

Kontakizunaren arabera, Jesusek elkarteari eman dion lehenengo gauza bakea izan da. Errietarik ez, bera bakarrik utzi dutelako; kexurik ez, gaitzespenik ez. Soilik, bakea eta poza. Haren arnasa kreatzailea sentitu dute ikasleek. Berriro hasi da guztia. Haren Espirituak eraginda, mendetan barna jarraituko dute lankide izaten Aitak Jesusi gomendatu zion egitasmo salbatzailean.

Gaur egun Elizak behar duena ez dira soilik erreforma erlijiosoak eta komuniorako deiak. Hau da geure elkarrekin bizi behar duguna: «hasiera berri bat», Jesus geure artean dugulako ustetik abiatuz. Hark bakarrik bete behar du Elizaren erdigunea. Hark bakarrik eragin dezake benetako komunioa. Hark bakarrik berriro ditzake gure bihotzak.

Ez dira aski gure ahaleginak eta lanak. Jesusek bakarrik eragin dezake horizonte-aldaketa, beldurra eta errezeloa kanporatzea, bakearen eta baretasunaren giro berria; ateak irekitzeko behar dugun giroa, geure garai honetako gizon-emakumeekin Ebanjelioa partekatzeko behar dugun giroa.

Baina ikasi beharra dugu hura gure artean dela fedez onartzen. Handik zortzi egunera Jesus berriro agertu zitzaizen eta kontalariak dio ateak itxirik zirela artean. Ez du Tomasek bakarrik ikasi beharra Berpiztuagan konfiantzaz sinesten. Beste ikasleek ere ikasi beharra dute duda-mudak eta beldurra pixkana gainditzen; izan ere, artean ebanjeliazioari ateak itxirik bizitzera behartzen baitituzte horiek.